



Usurbilgo Udala

2024/10/31

2024KO URRIAREN 31N EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Ainhoa Arrozpide Landa
Xabat Beloki Segurola
Iratxe Begiristain Otegi
Xabier Aranburu Leiva
Jose Maria Lizaso Azconobieta
Oskar Santamaria Picabea
Maialen Iñarra Arregi
Xabier Otxoa Muñoz
Josune Urkola Larrarte
Petra Romero Pozo

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Kontu-hartzailea: Gorka Lizarraga Erro.

Ez dira bertaratu: Jon Mikel Azpiazu Zubeldia eta Ivan Iriondo Axpe.

Usurbilen, 2024ko urriaren 31n arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA:

1.1.- 2024KO IRAILAREN 26KO BILKURA.

Batzarkideek 2024ko irailaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

1.2.- 2024KO URRIAREN 10EKO BILKURA.



Usurbilgo Udala

2024/10/31

Batzarkideek 2024ko urriaren 10eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2024KO IRAILAREN 20TIK URRIAREN 25ERA (2024/1054-2024/1205).

Alkatetzak 2024ko irailaren 20tik urriaren 25era bitartean (2024/1054-2024/1205) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- KONTU EMATEA: 2024KALD011 KREDITU ALDAKETA (2024EKKA0010).

Batzarkideei 2024ko Aurrekontuko KALD011 kreditu aldaketa espedientearen berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

4.- KONTU EMATEA: 2024KO 3. HIRUHILEKO AURREKONTUAREN EXEKUZIOA.

Batzarkideei 2024ko 3. hiruhileko aurrekontuaren exekuzioaren berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

5.- KONTU EMATEA: 2024KO 3. HIRUHILEKO ORDAINKETEN EPEA.

Batzarkideei 2024ko 3. hiruhileko ordainketen batezbesteko epearen berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

6.- GARBITANIA ZERO ZABOR SL SOZIJETATEAREN ETA SOZIJETATEAREN JABE DIREN HIRU UDALEN (ASTIGARRAGA, HERNANI, USURBIL) ARTEKO LANKIDETZAKO ESPARRU-HITZARMENA ONARTZEA (2024HITZ0009).

Batzarkideek Lurraldea batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“AURREKARIAK

2010eko maiatzaren 4an egindako Osoko Bilkurako erabakiaren bidez, Usurbilgo Udalak erabaki zuen hiri hondakinen eta asimilagarrien bilketa zuzenean kudeatzea, Udalaren baliabide propioa den Garbitaniaren bitartez.



Usurbilgo Udala

2024/10/31

2010eko maiatzaren 7an GARBITANIA sozietatea eratu zen, beste batzuen artean Usurbilgo Udalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa. Elkarte honen helburu soziala, sorrera eskriturako bigarren artikuluan jasota bezala, honakoa da:

“Hiri hondakinen eta asimilagarrien oinarritzko zerbitzuak zuzenean ematea da, hauen gaikako bilketa, kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua, gai honen inguruan dauden legezko xedapenak eta Europakoak betez.”

GARBITANIA, Usurbilgo Udaleko bitartekoa denez, izaera juridiko pribatuko merkataritzako erakundea den arren, bere kudeaketari aplikatu behar dizkio tokiko araubidearen legearen arabera aplikagarri zaizkion zuzenbide publikoko zenbait atal, hala nola: kontratazio publikoa, langileak hautatzeko araudia, aurrekontuen erregimen ekonomikoa eta hitzarmen hau sinatzeko unean edo etorkizunean legeak zehazten duen beste edozein.

2020ko apirilaren 30ean, Plenoak, Usurbilgo Udalaren eta GARBITANIA Zero Zabor SL sozietatearen arteko harremanak egituratzeko hitzarmena onartu zuen.

LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMEN BERRIA

Joan den otsailaren 14an, Garbitaniako administrazio-kontseiluak aztertu zuen esparru-hitzarmena, sozietatearen jabe diren hiru udalen artean hitzarmen bat sinatu eta gaurkotzeko Elkartearen eta Udalen arteko harremana gauzatze aldera.

Sozietatearen jabe diren hiru udalen eta GARBITANIAREN arteko harremana egituratzeko honako hitzarmena adostu dute:

Lankidetzako Esparru-Hitzarmena
GARBITANIA ZERO ZABOR, S.L.ri bere udal bazkideek egin beharreko
jarduera-enkarguen araubide juridikoa arautzen duena.

[...]n, 2024ko [...]ren [...]an.

BILDUTA:

[...] JN./AND.
[...] JN./AND.
[...] JN./AND.

ESKU HARTZEN DUTE:

[...] JN./AND, [...] ko udalaren izenean eta ordezkartzan.
[...] JN./AND, [...] ko udalaren izenean eta ordezkartzan.
[...] JN./AND, [...] ko udalaren izenean eta ordezkartzan.

ADIERAZTEN DUTE:

- I. 2010eko maiatzaren 7an Garbitania Zero Zabor, S.L. (aurrerantzean "Garbitania") sozietatea eratu zuten Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo



udalek, kapital sozialean, hurrenez hurren, % 49, % 33 eta % 18ko partaidetzarekin.

Estatutuen 2. artikulua araberan, sozietatearen xedea honako jarduerak osatzen dute:

A. "Hiri-hondakinen eta hondakin asimilagarrien gaikako biltza, kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua", gai horri buruzko bertako lege-xedapenak eta Europakoak beteaz

B. Arlo horietan era guztietako aholkularitza ematea. Hondakinak biltzeko, kudeatzeko eta tratatzeko sistema espezifikoak inplementatzeko bitartekoak eta moduak zabaltzea, hondakinen sorrera ahalik eta gehien murrizteko, ahalik eta birziklatze-maila handienak lortzeko eta arlo horretan indarrean dauden xedapenetako zehaztapenak hobeto betetzeko."

Sozietatea bazkide diren udalen bitarteko eta zerbitzu teknikoetatik jo zen estatutuaren 1. artikuluko bigarren eta hirugarren lerroketan. Honela diote:

"Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Usurbilek, Hernanik eta Oiarzungo erakundearen kapital sozialaren partaidetza dutenez. Sozietatea sektore publikoaren barruan egongo da eta aipatutako legea aplikatuko zaio.

Horiek horrela, erakundeak Hernaniko, Oiarzungo eta Usurbilgo Udalen bitarteko propio eta zerbitzu teknikoak izango du"

- II. Gaur egun, Oiarzungo Udala ez da Garbitaniako bazkidea, eta bai, ordea, Astigarragako Udala. Horrela, kapital sozialean gaur egun dituen partaidetzak honako hauek dira: Hernaniko Udala (% 49,9), Usurbilgo Udala (% 25,95) eta Astigarragako Udala (% 24,15). Estatutuak aipatutako partaidetzekin bat etorritik aldatu ziren, 2023ko abuztuaren 4ko Batzar Orokorraren erabakiz, eta, ondoren, eskritura publikoa egin zen 2023ko azaroaren 15ean. Estatutu sozial horietan behar bezala adierazten da hiru udal horiek berezko bitarteko direla.
- III. Garbitaniaren helburu soziala handitu egin zen 2019ko apirilaren 30eko Batzar Orokorraren erabakiz, eta eskritura publiko egin zen 2019ko maiatzaren 23an, estatutuaren 2. artikuluan aipatutako jarduerak gain, honako hau ere jasota:

C. Kalea, bide publikoak eta lorategiak garbitzeko zerbitzua.

- IV. Baliabide propioei dagokienez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 32.d) artikulua (aurrerantzean, SPKL) ezartzen du botere esleitzailak eman diezazkieketen **enkarguen araubide juridikoa eta administratiboa arautzea**, baldin eta bitarteko



Usurbilgo Udala

2024/10/31

propio pertsonifikatuak izaera hori badu eta erregulazio **hori estatutuetan edo ente hartzailearen sortze-egintzan ezartzen bada.**

- V. SPKLren 32. artikulua 4. atalean aurreikusitako **hainbat botere esleitzaileraren bitarteko propioaren** kasuan garrantzi berezia hartzen du eskakizun horrek; izan ere, arau horrek eskatzen duen kontrol bateratua betetzat jotzeko, **bitarteko propioa** botere esleitzaileretako edozeinek agintzen dizkion **jarduketak egitera behartuta** egon behar du, hala **aurreikusita baitago sozietate-estatutu edo -itunetan**. Hau da, estatutu edo itun sozial horietatik zalantzarik gabe ondorioztatu behar da horietako edozeinek enkarguak eman diezazkiokeela, eta enkargu horiek nahitaez bete beharrekoak direla bitarteko propioarentzat.
- VI. Aurreko guztia ikusita eta Garbitania bertako Udal bazkide guztien baliabide propioa denez, beharrezkoa da Udal horiek, oro har, Garbitaniari egin diezazkioketen jarduera-enkarguen araubide juridiko, ekonomiko eta administratiboa arautzea. Hori horrela, UDAL BAZKIDEEK GARBITANIA ZERO ZABOR, S.L. ENPRESARI EGIN BEHARREKO JARDUERA-ENKARGUEN ARAUBIDE JURIDIKO, EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBO HORI ARAUTZEN DUEN LANKIDETZARAKO ESPARRU-HITZARMEN HONETAN egitea erabaki da, honako hauen arabera:

XEDAPENAK

Lehenengoa.- Xedea

Hitzarmen honen helburua da Garbitaniak bitarteko propio den udalekin dituen harremanen araubide juridiko, ekonomiko eta administratiboa garatzea, eta, zehazki, udalek egin diezazkioketen jarduera-enkarguen.

Garbitania behartuta egongo da bere udal bazkideek eskatzen dizkieten prestazioak egitera, sozietatea udal horien bitarteko propio pertsonifikatua den heinean, betiere gauzatzen diren jarduera-enkarguek hitzarmen honetan jasotako zehaztapenak betetzen badituzte. Horrela, hitzarmen hau sinatzen duten udalek Garbitaniari egindako enkarguek datu pertsonalak kudeatzea badakarte, Garbitania tratamenduaren arduraduntzat hartuko da, eta, horretarako, informazio pertsonala kudeatzeko eta babesteko indarrean dagoen araudia bete beharko du. Kasu horretan, datu horiek eskuratzea ez da hartuko datuen komunikazio edo lagapentzat, tratamendu-enkargua gauzatzea baizik.

Hori horrela izanik, hitzarmen hau da jarduketa-enkargu oro egiteko eta nahitaez gauzatzeko derrigorrez bete beharreko zehaztapenak ezartzen dituen dokumentu arauemailea.

Udal sinatzaileek, Garbitaniako bazkide diren aldetik, eta estatutuek araubide juridiko hori zehazteko eskatzen duten betekizuna betetze aldera, konpromisoa hartzen dute sozietatearen estatutuetan, igorpen gisa, hitzarmen honen berriazko aipamen bat sartzeko, jarduteko enkarguen araubide hori arautzeko.



Usurbilgo Udala

2024/10/31

Garbitaniak ezin izango du parte hartu udalek deitutako lizitazio publikoetan, haien bitarteko propioa baita. Nolanahi ere, lizitatzailerik aurkezten ez bada, eta ondorioz lizitazioa hutsik geratzen denean, xede den prestazioa gauzatzeko eskatu ahal izango zaio.

Bigarrenena.- Aplikazio-eremua

Hitzarmen hau botere esleitzaille guztiei aplikatuko zaie, baldin eta, Garbitaniako bazkide izanik, bitarteko propio pertsonifikatu gisa deklaratu badute.

Hitzarmen hau sinatzen duen edozein udalek Garbitaniako bazkide izateari utziko balio, Garbitaniak berezko bitarteko izateari utziko lioke udal horri dagokionez, eta bazkide diren gainerako udalek estatutu-aldaketa egokiak egin beharko dituzte, sozietatearen estatutuetan dagokion aipamena kentzeko. Kasu horretan, automatikoki hautsiko da Hitzarmen honekiko lotura.

Korrelatiboki, botere esleitzaille berriak sozietateko akziodunen parte izatera pasatzen badira eta Garbitania bitarteko propio deklaritzen badute, beharrezko estatutu-aldaketa egingo dira izaera horren berri emateko. Ondoren, dagokion gehigarria sinatuta, erakunde berria Hitzarmen honi atxikiko zaio.

Hirugarrena.- Enkarguen xedea.

Hitzarmen hau sinatzen duten udalek Garbitaniari enkarguak eman ahal izango dizkiote, hitzarmenaren xede sozialaren barruan egonik, beren eskumenak eta eginkizunak betetzeko behar dituzten lan eta jardueri buruz, bai eta osagarriak direnei buruz ere.

Jarduteko enkargu horiek, Hitzarmen honetan aurreikusitakoa errespetatzen dutenean, nahitaez bete beharrekoak izango dira Garbitaniarentzat.

Laugarrena.- Araubide juridikoa.

Egiten diren jarduera-enkarguek izaera instrumentala dute eta ez dute kontratu izaerarik, barnekoak eta mendekoak dira. Garbitania behartuta egongo da enkargu horien lanak eta jarduerak egitera.

Bostgarrena.- Ekonomia-araubidea.

Oro har, udalek agindutako obrak, lanak, laguntza teknikoak, aholkularitzak, hornidurak eta zerbitzuak egiteagatik Garbitaniak jaso beharreko konpentsazioa udal bazkide guztiek onetsitako tarifen arabera ezarriko da, dokumentu honen seigarren klausulan aurreikusitako moduan. Nolanahi ere, tarifa horiek jarduera egitearen benetako kostuak adierazi beharko dituzte. Prestazio edo jarduera jakin batzuk bitarteko propioaren bidez azpikontratatzeko badira, azpikontratazio horrek jasandako benetako kostuari ere erreparatuko zaio.

Zehazki, konpentsazio hauek jasoko dira:



Usurbilgo Udala

2024/10/31

- a) Klausula honen hurrengo paragrafoetan adierazten den prozeduraren arabera egindako aurrekontutik ateratzen den zenbatekoa, Garbitaniak zuzenean gauzatutako jarduketaren (edo jarduketaren zati baten) kasuan.
- b) Garbitaniak ordaindutako zenbatekoa, dokumentu honen hamargarren klausularen arabera kalkulatuta, enpresaburu partikularrek azpikontratazioaren bidez gauzatutako jarduketaren kasuan (edo jarduketaren zati bat).

Aurreko paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako aurrekontua egiterakoan, honako zehaztapen hauek beteko dira:

Agindutako jarduketaren gauzatze materialaren aurrekontua honako hauen baturaz osatuko da:

- Jarduketei tarifak aplikatuz kalkulaturako guztizko kostu zuzenen zenbatekoa, hurrengo klausularen arabera finkatuta.
- Zeharkako kostuen eta gastu orokorren ehunekoa aplikatuta ateratzen den zenbatekoa.

Zeharkako giza baliabideak zuzeneko giza baliabideen benetako kostuaren ehunekoaren arabera hainbanatuko dira.

Gastu orokorrak, bestalde, ustiapen-kostu osoaren gainerakoari eta giza baliabideen benetako kostuari aplikaturako ehunekoaren arabera hainbanatuko dira.

Aurrekontu horri dagokion BEZa gehituko zaio, bai eta jarduera horrengatik Garbitaniak ordaindu behar dituen tasak eta zergak ere, baldin eta kengarriak ez badira.

Ondorengo klausulen arabera finkaturako tarifarik onartu ez bada, onartutako tarifa duten eta kasuan kasuko jarduketaren parte diren beste jarduketa batzuk osatzen dituzten elementuei dagokien tarifatik abiatuta baloratu ahal izango da haien kostua. Prozedura hori ere ezin bada aplikatu, horren kostua udalak onartutako aurrekontuan agertzen dena izango da, eta kostuak, beraz, enkarguari dagokion jarduketa zehatzerako bakarrik izango dira baliozkoak.

Seigarrena.- Tarifak.

Tarifak jarduera zehatzaren kostu erreal osoen (zuzeneko zein zeharkako eta gastu orokorrak) arabera kalkulaturako dira.

Tarifa berriak onartzeko edo daudenak aldatzeko, administrazio-kontseiluko kideen gehiengoaren aldeko botoa beharko da.

Tarifak onartzeko erabakia honako klausula hauetan zehazten den Jarduera Plan Orokorra (hemendik aurrera JPO) izeneko dokumentua adosten duen bera



izango da. Erabaki horretan, tarifen balio-epea eta, hala badagokio, indarrean dauden bitartean dagokien eguneratze-sistema ezarriko da, betiere Espainiako ekonomia desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legean eta hura garatzen duen araudian xedatutakoarekin bat etorriz.

Tarifa berriak ezartzeko, daudenak aldatzeko eta, lanen izaeraren arabera, berrikusteko eta onartzeko aplikatu behar diren prozedurak, mekanismoak edo formulak zehazteko lanak administrazio-kontseiluko kide gehienen onespena beharko dute.

Zazpigarrena.- Enkargua prestatzea eta formalizatzea

Nahitaezko jarduketa-enkarguak egiteko prozedurari dagokionez, enkarguak egingo dituzten udalek behar besteko zehaztasunez definituko dituzte JPO izeneko dokumentu batean. Dokumentu hori urtero egingo da, eta dagokion aurrekontuan baloratuko dira, bosgarren xedapenean aipatutako sistemaren arabera.

Enkargua formalizatu eta Garbitaniari jakinarazi aurretik, udalak agiri horiek onartzeko beharrezko diren udal izapideak egin beharko ditu. Alegia, nahitaezko izapide teknikoak, juridikoak, aurrekontukoak eta gastua kontrolatu eta onartzekoak.

Enkargua aipatutako JPOn formalizatu beharko da, eta dokumentu horren bertsio bat SPKLren 63.6 artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuko da.

Ondorio horietarako, Udalek ezingo diote Garbitaniari enkargu formalk gabeko jarduketa materialik egiten hastea eskatu eskumena duen organoaren enkargurik gabe.

Nahitaezko jarduketa bakoitzaren enkargua formalki jakinaraziko dio Garbitaniari enkargua egiten dion udalak, eta, horrekin batera, lehen aipatutako formalizazio-dokumentua aurkeztuko du, honako hauek jasoko dituenak: jarduera-proiektua, kronograma, udalarentzako exekuzio-aurrekontua, bai eta gauzatzeko behar den beste edozein dokumentazio ere, guztiak organo eskudunak sinatuta.

Dokumentazio horretan, besteak beste, egin beharreko jarduerak, unitate arduradunak eta horien aurrekontua jaso beharko dira, bai eta jarduera horiek gauzatzeko ardura duten pertsonak edo zerbitzuak ere.

JPOn aurreikusi ez diren eta hurrengo onartu aurretik gauzatu behar diren jarduketan kasuan, honela jokatu da, JPOn onartutako gainerako jarduketei modu esanguratsuan eragiten dien ala ez kontuan hartuta:

- Dagoeneko onartutako jarduketan plangintzan edo gauzatzean eraginik ez duten jarduketan kasuan, horiek gauzatzeko aurrekontua eta ekintza-plana egingo dira. Agiri horien onarpenak hasteko agindua ekarriko du. Administrazio-kontseiluari horien berri emango zaio agindua eman ondoren egiten den lehenengo bilkuran.



- Onartutako JPOn jasotakoari orokorrean eragiten dieten jarduketan kasuan, JPO bera onartzeko gauzatutako prozedura bera jarraitu beharko da.

Zortzigarrena.- Enkargua gauzatzea eta ordaintzea.

Enkargua egiten duen udalak lanen zuzendaria izenda dezake. Garbitaniak bere jarduketak aurreko klausulan aipatutako agirien eta udalak enkargu horretarako izendatutako lanen zuzendariaren jarraibideen arabera egingo ditu.

Enkarguaren xede diren lanen edo jarduketan izaeraren arabera, gauzatutakoaren harrera edo adostasuna egiaztatzeko helburuarekin, udalak formalitate jakin batzuk betetzeko eskatu ahal izango du, komenigarritzat jotzen duen aldizkakotasunarekin. Era berean, enkargua egin duen udalak gauzatzearen eta aurrekontuaren betetze-mailaren egoera jasoko duen hileroko txostena eskatu ahal izango du. Txosten hori eskatzen bada, jarduketa onartutzat joko da, baldin udalak kontraktorik adierazten ez badu, eta, enkarguan jaso gisa, exekuzioarekin jarraitzeko agindua izango da.

Enkargua zuzendu edo aldatu behar izanez gero, enkargua onartzeko eskatzen den prozedura bera erabili beharko da.

Egindako lanen zenbatekoa enkargua ematen duen udalak ordainduko du, dagokion jarduera osorik edo zati batean egin eta hurrengo 30 eguneko epean.

Enkargua egin duen udalak egokitzen jotzen bada, jarduketa amaitu ondoren egiaztatu egingo da, eta, hala dagokionean, jaso izanaren egintza gauzatuko da dagokion dokumentuan. Ondoren, likidazioa egingo da, enkarguaren beraren edo udalak erabakitakoaren arabera.

Garbitaniak, enkargua egiten duen udalaren nahierara, aurrerakinak jaso ahal izango ditu enkarguak gauzatzeko egindako prestaketa-eragiketengatik, enkargua ematen duen udalaren aurrekontu-araudian aplikagarri den gehieneko mugaraino.

Bederatzigarrena.- BALIABIDE PROPIOAREN ETA ZERBITZU TEKNIKOAREN IZAERAREN ONDORIOZKO BETEBEHARRAK

Garbitaniak honako hauek bete beharko ditu bere izenean, udal bazkideen kontura, hitzarmen honetan eta formalizatutako enkarguetan adostutakoari jarraituz:

- a) Eskatzen zaion zerbitzu publikoa eskaintzea
- b) Zerbitzua eskaintzean gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea dagokion udalari
- c) Aholkularitza tekniko eta lankidetzak eskaintzea udal organo eskudunei zerbitzuarekin zerikusia duten gaien inguruan
- d) Aholkularitza tekniko eta lankidetzak eskaintzea udal-teknikariei edo alkateek izendatutako pertsoneri, sozietatearen helburu sozialarekin zerikusia duten



Usurbilgo Udala

2024/10/31

gaietan

e) Legea eta kontabilitate-printzipioak betez, urteko kontuen memoria eta araudia betetzeari buruzko txostena aurkeztea, honako eremuei dagokienez: aurrekontua, finantza- eta zor-eragiketak, langileen kontratazioa eta zerbitzuen eta horniduren kontratazio publikoa

f) Urteko jardueraren ikuskaritza-txostena aurkeztea

Hamargarrena.- Hirugarrenekin azpikontratatzea.

Udalek egiten dituzten enkarguak gauzatzean, Garbitaniak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du, baina azpikontratazio horrek ezin izango du enkarguaren zenbatekoaren %50 gainditu, SPKLren 32.7 artikuluan aurreikusitako baldintzetan eta salbuespenekin.

Azpikontratazioaren xede diren jarduketan aurrekontuan sartutako zenbatekoa esleipen-prezioarekin ordeztuko da ziurtagirietan edo harrera-agirian, zeharkako kostuen eta gastu orokorren ehunekoa gehituta.

Hamaikagarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.

Administrazio arteko hitzarmen honek lau urteko indarraldia du, baina, edozein unetan, epe hori amaitu baino lehen, sinatzaileek aho batez erabaki dezakete hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urtez. Nolanahi ere, hitzarmena azkentzeak ez du eraginik izango haren babesean egindako jarduera-enkarguen indarraldian.

Hamabigarrena.- Esparru-Hitzarmena aldatzeko araubidea.

Esparru-Hitzarmena aldatu ahal izateko, udal sinatzaileek aho batez hartu beharko dute erabakia.

Hamahirugarrena.- Jarraipen-Batzordea.

Alderdiek Esparru-Hitzarmenaren betearazpenaren Jarraipen-Batzordea eratzea adostu dute. Administrazio-kontseiluko kideek osatuko dute batzorde hori.

Jarraipen-Batzorde horrek zeregin hauek izango ditu:

- Esparru-Hitzarmena betetzen dela zaintzea, eta interpretazioari, betetzeari eta gauzatzeari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea
- Esparru-Hitzarmenaren betetze-maila eta exekuzio-maila aztertzea
- Udal sinatzaileek kasu bakoitzean zehazten duten beste edozein eginkizun

Jarraipen-Batzordeak berak ezarriko ditu bere funtzionamendurako barne-arauak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako esparruaren barruan

Batzordeak hitzarmena betearazteko jarraipen-, zaintza- eta kontrol-mekanismoa hartuko du kontuan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren



Usurbilgo Udala

2024/10/31

urriaren 1eko 40/2015 Legearen ondorioetarako.

Hamalauugarrena.- Esparru-Hitzarmena iraungitzea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. eta 52. artikuluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira Esparru-Hitzarmena azkentzea eta haren ondorioak.

Hamabosgarrena.- Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa.

Esparru-Hitzarmena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluari eta hurrengoei eta aplikatzekoa den toki-araubidearen araudiari lotuta dago.

Hitzarmen hau administratiboa da, eta ordenamendu juridiko administratiboaren arabera interpretatu eta garatuko da.

Hamaseigarrena.- Gatazkak konpontzea.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute, Esparru-Hitzarmen hau betetzeari dagokionez, sor daitezkeen desadostasunak hamabigarren puntuan aurreikusitako Jarraipen Batzordean konpontzeko. Horretarako, elkarrizketa eta negoziazioaren bideak zein eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliko dira,. Gatazkarik sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-organismoek izango dute sortzen diren auzigaien gaineko konpetentzia.

Horren fede emanez, alderdiek Esparru-Hitzarmena sinatzen dute [...] (...) aletan, alde bakarrean inprimatutako paper arrunteko orri guztietan, goian adierazitako tokian eta egunean.

TXOSTEN TEKNIKOA

Lankidetzako Esparru-Hitzarmena aztertu ostean, ingurumen eta nekazaritza teknikariak, Ibon Goikoetxea Retegi jaunak, 2024ko urriaren 16an honako txostena eman du:

TXOSTENA

GAIA: Garbitania Zero Zabor, S.L.-ri bere udal bazkideek egin beharreko jarduera-enkarguen araubide juridikoa arautzen duen lankidetzak hitzarmena
UDAL TEKNIKARIA: Ibon Goikoetxea Retegi
ESPEDIENTE ZBKIA.: 2023HITZ00089

AURREKARIAK

- 2024ko urrian Garbitania Zero Zabor, S.L.-k (aurrerantzean Garbitania) Usurbilgo Udalean lankidetzak hitzarmen proposamena aurkeztu du.

AZTERKETA ETA PROPOSAMENA



Usurbilgo Udala

2024/10/31

Usurbilgo Udala Garbitania-ko kide da bere hastapenetatik. Atez Ateko bilketa egiteko ezinbesteko baliabide bilakatu delarik.

Zerbitzuaren kudeaketa ikuspegitik, beharrezkoa da, urtero Usurbilgo Udalerrira egokituko den zerbitzu bat eman ahal izatea, eta horretarako egin beharreko jarduera-enkarguak aurrez zer eta nola eskatuko diren adostea beharrezkotzat jotzen da.

Hortaz, aipatu hitzarmena beharrezkotzat jotzen da eta ALDEKO txostena igortzen dut Garbitaniarekin egin beharreko jarduera-enkarguak arautuko dituen hitzarmena sinatzeko.

Ibon Goikoetxea Retegi
Ingurumen eta Nekazaritza teknikaria

IDAZKARIAREN TXOSTENA

Udal idazkariak, Xabin Juaristi Arrieta jaunak, berriz, 2024ko urriaren 17an eman du bere txostena. Hitzez hitz honela dio:

Idazkariaren txostena

Xabin Juaristi Arrietak, Usurbilgo Udaleko idazkari naizen aldetik, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 172. artikuluan eta Gaikuntza nazionala duten Toki Administrazioaren funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3 c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, honako txosten hau ematen dut:

Aurrekariak

Joan den otsailaren 14an, Garbitaniako administrazio-kontseiluak aztertu zuen esparru-hitzarmena, sozietatearen jabe diren hiru udalen artean hitzarmen bat sinatu eta gaurkotzeko Elkartearen eta Udalen arteko harremana gauzatzeko aldera.

Hori dela-eta, txosten honen bidez juridikoki aztertuko da eskaera babes juridikoa daukan, eta bidalitako hitzarmen-proposamenak legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen ere.

Oinarri juridikoak

Lehena.- araudi aplikagarria

Aplikatu beharreko oinarrizko legeria honako hau da:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituena
- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak



Usurbilgo Udala

2024/10/31

- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legea.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruz
- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubideari buruz indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bategina onetsi duena.

Bigarrena.- Eskumena.

Erakunde bati bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera baimentzeko eta aitortzeko eskumena erakunde nagusiari dagokio, kasu honetan, Usurbilgo Udalari. Bitarteko hori berariaz aitortu behar da erakundea sortzeko estatutueta edo arauan. Kasu honetan, agerikoa da indarrean zegoen araubide juridikoa iraungi egin dela legearen hitzez-hitzeotasunari erreparatuta.(40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarena, 49.h) 1. artikulua).

Usurbilgo Udalaren udalbatzari dagokio erakundearen estatutuen aldaketa onartzeko eskumena, bai eta hitzarmena berria onesteko eskumena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. artikuluen b) eta p) idatz-zatien arabera.

Erabakia gehiengo osoz hartu behar da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2 g) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Gaiaren azterketa.

Eskumenari dagokionez: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikulua honako hau dio: «Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituzte honako eremu material hauetan: 16) Argiteria publikoa, bide-garbiketa, biztanle-guneetako sarbideak, kale-zoladura eta parkeak eta lorategiak antolatzea eta kudeatzea eta zerbitzu horiek ematea. 17) Udal-hondakinak edo hiri-hondakin solidoak bildu eta tratatzeko zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta kontrolatzea, eta hondakin gutxiago sortzeko plangintza programazioa eta diziplina ezartzea».

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 32. artikuluko 2., 4. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako baldintzak betetzea.

Bitarteko propio pertsonifikatuei egindako enkarguak edo SPKLren (32. eta 33. artikulua) terminologiako «lankidetzak bertikaleko sistemak» (eragin praktiko handia duen administrazio-kudeaketako tekniketako bati egiten zaio erreferentzia).

Lankidetzak bertikaleko harreman horien bidez, zenbait baldintza betetzen dituzten sektore publikoko erakundeek, auto-antolaketarako duten ahalmena erabiliz, beren baliabide pertsonifikatuei eska diezaiekete kontratu-prestazio jakin batzuk egiteko (obra-kontratuei, hornidurei, zerbitzuei, obra-emakidari eta



zerbitzu-emakidari dagozkienak) (lege horretako 31.1.a) artikuluan aurreikusten da).

32.4 artikulua betekizunak arautzen ditu:

«4. Elkarrekiko independenteak diren bi botere adjudikatzailearen edo gehiagoren bitarteko propio pertsonifikatutzat hartuko dira baldintza hauek guztiak betetzen dituzten zuzenbide publikoko zein zuzenbide pribatuko pertsona juridikoak:

a) Mandatuak eman diezazkioketen botere adjudikatzaileek beren zerbitzu edo unitate propioekiko izan lezaketaren antzeko kontrol bat izatea, batera, horien hartzailea den entearen gainean. Baterako kontrol bat izateko honako baldintza hauek guztiak bete behar dira:

1. Mandatuaren hartzaile den entearen erabakitze-organoetan ordezkari izatea hari mandatuak eman ahal dizkioten ente guztiek; halakoetan, ordezkari bakoitzak azken horietako batzuk edo guztiak ordezkatu ahalko ditu.

2. Azken horiek zuzenean eta batera eragin erabakigarria eduki ahal izatea mandatuaren hartzaile den entearen helburu estrategikoei eta erabaki garrantzitsuei buruz.

3. Mandatuaren hartzaileak ez izatea mandatuak eman ahal dizkioten entearen interesen aurkakoak diren interesak.

Ordaindu beharreko konpentsazioa ezartzeko, tarifa hauek hartuko dira erreferentziatzat: bitarteko propio pertsonifikatuak nagusi duen erakunde publikoak onetsita dauzkanak bitarteko propioak zuzenean egiten dituen eta mandatuaren xede diren jardueretarako. Eta, horretarako, mandatuaren xede diren eta enpresaburu partikularrekin azpikontratatzaren jardueretarako bitarteko propioak jasandako egiazko kostuari erreparatuko zaio, erregelamenduz erabakitzen den eran erreparatu ere, kostu hori txikiagoa denean azpikontratatuak jardueri tarifak aplikatuz heldu dena baino.

Tarifa horiek, betiere, bitarteko propioak zuzenean ekoizitako unitateak egiteko benetako kostuak jasotzeko moduan kalkulatu dira.

b) Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzaileek –edo botere adjudikatzaile horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikulua honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da».

32.6 artikulua, gainera, honako hau xedatzen du:

«6. Mandatuaren hartzailea den entearen jardueren ehuneko 80 baino gehiago egin daitezela hura kontrolatzen duten botere adjudikatzaileek –edo botere adjudikatzaile horiek bere kontrolatutako beste pertsona juridiko batzuek– emandako eginkizunak betez. Ehuneko 80 hori artikulua honen 2. apartatuaren b) letran ezarritakoaren arabera kalkulatu da.

a) Baliabide propio pertsonifikatuak dagokion kontratazio-plataforman honako hauek eduki behar ditu argitaratuta: halakoaren izaera duela; zer botere



adjudikatzailekiko duen izaera hori, eta zer jarduera-sektorekiko izango litzatekeen gai mandatuaren xede diren prestazioak emateko, hain zuzen bere xede sozialean sartzen direlako.

b) Mandatua agiri baten bidez formalizatuko da, eta agiri hori dagokion kontratazio-plataforman argitaratuko da 63.6 artikuluan aurreikusitako kasuetan. (SPKLren 63.6 artikulua adierazten du, halaber, bitarteko propioen bidez egindako enkarguen zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa bada, BEZik gabe, kontratatzailearen profilean argitaratuko dela). Mandatua formalizatzeko agiriari mandatuaren iraupen-epea ezarriko du.

c) Artikulu honek c) eta d) hizkietan ezarritako betekizunak konpliztea. Hau da:

c) Mandatuaren hartzailea pertsonifikazio juridiko-pribatuko erakunde bat denean, gainera, haren kapital edo ondare osoak titulartasun edo ekarpen publikokoa izan beharko du.

d) Mandatuaren hartzaile den erakundea bitarteko propio pertsonifikatua da mandatua ematen duen botere adjudikatzaile zehatzari dagokionez, eta berariaz aitortu beharko da estatutuetan edo sortze-egintzetan, honako baldintza hauek bete ondoren:

- 1. Bitarteko propio izango den botere adjudikatzailearen adostasun edo baimen espresua.*
- 2. Erakunde publikoak egiaztatzea bere bitarteko propioa izango den erakundea menpean duela giza baliabide eta baliabide material egokiak dituela mandatuak bere helburu sozialaren arabera egiteko.*

Mandatuaren hartzaile den entearen estatutuetan edo sortze-egintzan honako hauek zehaztu beharko dira: zer botere adjudikatzailekiko duen izaera hori; eman dakizkiekeen enkarguen araubide juridikoa eta administratiboa zehaztu beharko ditu; eta bitarteko propio pertsonifikatutzat duen botere adjudikatzaileak deitutako lizitazio publikoetan parte hartzeko ezintasuna ezarri beharko du, hargatik eragotzi gabe lizitatzailerik aurkezten ez denean haien xede den prestazioa gauzatzeko enkargua ematea.

Nolanahi ere, letra honen 2. zenbakian ezarritako baldintza betetzen duela ulertuko da dauzkan talde, azpitalde eta kategoriei dagokien sailkapena lortu duenean.

Espedientean jasota dago SPKLren 32.2, 32.4 eta 32.6 artikuluetako baldintzak betetzen direla.

ERABAKI PROPOSAMENA

Aipatu guztiagatik, proposatzen dut UDAL OSOKO BILKURAK akordio hau hartzea :



Usurbilgo Udala

2024/10/31

Lehenengoa. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzak betez, Garbitania Zero Zabor Sozietate Mugatuari egin ahal izango dizkioten jarduteko enkarguetako araubide juridikoaren lankidetzarako esparru-hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Alkateari ahalmena ematea esparru-hitzarmena sinatzeko, eta hori garatzeko beharrezko diren agiri guztiak sinatzeko ere, egin beharreko enkarguei dagozkienak izan ezik, horiek organo eskudunak onartu beharko baititu aldez aurretik.

Hirugarrena.- Erabaki hau komunikatzea Hernaniko eta Astigarrako Udalei eta Garbitania Zero Zabor Sozietate Mugatuari.

Hau da sinatzen duen idazkariaren iritzia, zuzenbidean hobeto oinarritutako beste irizpideren baten kalterik gabe.

Usurbilen, sinadura datan.
Udal idazkariak

Guzti hau ikusirik, Lurraldea Batzordeak, 2024ko urriaren 22an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide eta Iratxe Begiristainen aldeko botoekin, eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, gehiengoz onartutako irizpena kontuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 32. artikuluan ezarritako baldintzak betez, Garbitania Zero Zabor Sozietate Mugatuari egin ahal izango dizkioten jarduteko enkarguetako araubide juridikoaren lankidetzarako azalpenetan jasotako esparru-hitzarmena onartzea.

BIGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea esparru-hitzarmena sinatzeko, eta hori garatzeko beharrezko diren agiri guztiak sinatzeko ere, egin beharreko enkarguei dagozkienak izan ezik, horiek organo eskudunak onartu beharko baititu aldez aurretik.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau komunikatzea Hernaniko eta Astigarrako Udalei eta Garbitania Zero Zabor Sozietate Mugatuari.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

2024/10/31

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA (2024IMOZ0008).

Batzarkideek 2024ko urriaren 23ko Herritarrak batzorde informatzailean aztertua izan zen adierazpena aho batez onartu dute, honela dio:

“AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Azaroaren 25a emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta Udalok gaitzespen irmoa adierazten dugu indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean, eta beste erakunde batzuekin, mugimendu feministarekin eta gizarte osoarekin modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Aurten, arreta jarri nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diskurtso ukatzaileetan, ultraeskuinak aurrera egiteko Europako eta munduko testuinguru batek bultzatuta jaiotzen baitira. Emakumeen eskubideetan izandako aurrerapenen aurreko erreakzio horrek, emakumeen eta haien inguruaren aurkako indarkeria ezereztu egiten du, eta oraindik haratago doa, lege-aldaketan biktimak gizonak direlako ustea sustatuz, berdintasunari eta indarkeria matxistari dagokienez.

Nahiz eta gero eta sentsibilizazio eta kontzientzia kolektibo handiagoa egon emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartearen alde, – bai esparru legalean, eta politikoan, bai sozialean-, gaur egungo joera neomachista hasten ari da, batez ere mutil eta gizon gazteengan eta adin ertainekoetan eta eremu digitalean, bereziki. Manosfera deitu zaion eremuan, mezu misogino eta berdintasunaren aurkako mezu ugari daude. Ondorioz, "indarkeriak ez duela generorik", "asmakizun ideologikoa" dela eta berdintasun-politikak urrunegi iritsi direla bezalako mezuak jasotzen ari dira gazteak.

Diskurtso horien aurrean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren datuek gogorarazten digute gure gizarteak egiturazko arazo bat duela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritzen dena. Negazionismoa arazo globala da, eta Nazio Batuek ere alarma piztu dute berdintasunaren aurkako-mehatxu gero eta handiagoez eta misoginiaren normalizazioaz ohartarazteko, batik bat, hedabide digitaletan.

Hori guztia kontuan hartuta, Usurbilgo Udalean emakumeen aurkako indarkeria ezereztu nahi duen edozein diskurtsoren aurka agertzen gara, eta honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Gure herrian, euste-horma kolektiboa aktibatzea, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo/eta ezereztan duen edozein erreakzio matxistaren aurrean, tokiko eragile guztiekin lan



Usurbilgo Udala

2024/10/31

eginez, mezu ukatzaileak indargabetzeko eta tokiko bizitzan barneratzeko eta halakoak sortuz: partaidetza-mahaiak, zurrumuru misoginoei eta mezu ukatzaileei aurre egiteko tokiko sareak, komunikazio bateratuak, erantzun publiko eta kolektiboko protokoloak...

- Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea, batez ere mutilei zuzendutakoak, egunero jasotzen dituzten mezu misoginoak, emakumeen aurkako mezu bortitzak eta berdintasunaren aurkakoak desaktibatzeke, batik bat, bitarteko digitalen bidez.
- Gune formal eta informaletan, eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuak indartzea, indarkeria matxistaren aurrean mezu eta jarrera ukatzaile horiei aurre egiteko eta desaktibatzeke.
- Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko bideak erabiltzea, eskola-curriculumean jarrera ukatzaileetan eta jarrera matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko.
- *Berdinsareatik*, eta beste sareetatik ere, udalerriek sarean ekiteko aukera indartzea, negazionismoari aktiboki aurre egiteko eta udalerriek indarkeria matxistaren aurka kolektiboki borrokatzeke egiten duten apustua berresteko.

Era berean, Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, hainbat herritan antolatuko diren ekitaldietan parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak, emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien aurrean gaitzespena modu aktiboan adierazteko, horien negazionismoa eta ezereztea barne.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, adierazpena aho batez onartu da.

8.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Abenduko plenoa hilaren 19an arratsaldeko 19:00etan egitea adostu dute, aurretik arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara indarkeria matxistaren protokolo lanketa izango baidute hautetsiek.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:40etan. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.